



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainak 30

Vitoria-Gasteiz, 30 de junio de 2020

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ONLINE DATUAK TRUKATUKO DITUZTE, HERRITARREN ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK SINPLIFIKATZEKO

- Gaur onetsitako akordioaren bidez, herritarrek ez dituzte aurkeztu behar izango dagoeneko administrazio publikoen esku dauden datuak eta dokumentazioa
- Administrazioek kostuak eta espazioak aurreztuko dituzte, eta haren eraginkortasuna eta informazioaren kalitatea hobetuko dituzte
- Euskadi lider da administrazioen arteko online informazioaren trukean; 2019an, 11,9 online transmisio egin dira

Gobernu Kontseiluak, gaur, lankidetzeta-hitzarmena onetsi du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artekoa, elkarri administrazio elektronikoko oinarrizko soluzioen prestazioa emateko. Bizkaiko Foru Aldundiak, hala, bat egin du Arabako eta Gipuzkoa foru-aldundiekin; haiek elkarreragingarritasun-akordioak sinatu zituzten, 2018ko abenduan.

Bi administrazioek konpromisoa hartu dute, horrela, elkarreragingarritasunerako bide ematen duten lineako zerbitzuak emateko, alegia, informazioa, datuak eta zerbitzu elektronikoak trukatzeko. Akordioak dakar jauzi kualitatiboa ematea erakundeen arteko lankidetzan, herritarren eta administrazio publikoen arteko harremana errazteko eta sinplifikatzeko. Hala, herritarrek ez dute administrazio batetik bestera ibili behar izango, dagoeneko administrazio publikoen esku dauden datuak eta paperezko dokumentazioa aurkezteko.

Erabiliko den elkarreragingarritasun-sistemaren bidez, ziurtagiriak edo paperezko beste egiaztagiri batzuk ordezkatzeko dira, eta, haien ordeztu, datuen transmisio elektronikoak egingo dira, eta horrek ziurtatu egingo ditu trukatzeko informazioaren benekotasun-, osotasun-, isilpekotasun-, disonibilidade- eta kontserbazio-baldintzak.

Gaur onetsitako akordioaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak datuak partekatzen dituen plataformen sarearekin bat egingo du. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak honako oinarrizko aplikazio hauek partekatuko dituzte, besteak beste:

- ✓ **Euskal Sarea**, euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea.
- ✓ **IZENPE**, sinadura elektroniko aurreratuko zerbitzuak, besteak beste euskal agentziaren identifikazioko, autentifikazioko eta sinadura elektronikoko baliabideak.
- ✓ **NISAE**, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragingarritasunerako nodoa (NISAE).

- ✓ **Ordainketa Pasabidea**, edozein izapide mota segurtasunez eta erraz ordaintzeko.
- ✓ **Euskadiko herritarren karpeta**, euskal administrazio publikoen herritarren informazio- eta tramitazio-zerbitzuen elkarreragingarritasuna).
- ✓ Euskal administrazio publikoen **Kontratazio Elektronikoko Plataforma**.

Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzak-akordioak 4 urteko indarraldia du, eta aldi hori beste lau urtera arte ere luza daiteke, eta ez dakar alde batentzat ere kontraprestazio ekonomikorik.

HERRITARRENTZAKO ONURAK

- **Herritarrentzako zerbitzua hobetzen du:** administrazioen arteko lankidetzaren ondorioz.
- **Administrazioen sistemen artean informazioa trukitzea.** Helburua da herritarrek erakundeen artean noraezean ibili behar ez izatea, dela batek emandako dokumentuak beste batean aurkeztu behar izateko, dela administrazio desberdinetan eskabideak eta idatziak izapidetu behar dituztelako.
- **Izapideak eta administrazio-prozedurak sinplifikatzea.** Murriztu egiten da administrazioekiko izapideetarako edo ziurtagiriak eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- **Gardentasuna eta erraztasuna:** herritarrek ez dute administrazioek ematen dituzten zerbitzuen atzean dagoen barne-izapidetzea ezagutu behar izango; orain arte, batzuetan, beharrezkoa izan da, zenbait izapide egiteko orduan

ADMINISTRAZIOENTZAKO ONURAK

- **Eraginkortasuna hobetzea:** areagotu egiten da administrazio-jarduketaren eraginkortasuna, elkarlanaren eta lankidetzaren bidez.
- **Kostu eta espazioak aurreztea:** paperezko dokumentuen ordez elektronikoak erabiltzeak aukera emango du paperezko dokumentuak emateak eragiten dituen kostuak murrizteko, bai eta haiek biltzeko espazioa murrizteko ere; hala, ingurumena zaintzen laguntzen da.
- **Lan-karga murriztea:** truke elektronikoa izanez gero, arindu egiten da data-karga kudeaketa-sistema hartzaileetan.
- **Informazioaren kalitatea hobetzea:** kudeaketa-sistema hartzaileetan informazioa kargatzean, egon daitezkeen erroreak ezabatzen dira; izan ere, karga hori automatizatu ahalko da.

EUSKADIKO ELKARRERAGINGARRITASUNEN DATUAK

Euskadi estatuan administrazio publikoen arteko online informazioaren trukean buru da; posizio horren ondorioz, baliabide publikoen aurrezpen handiak egiten ditu. 2019an, euskal administrazioek 11.950.131 online transmisio egin zituzten, NISAE nodoaren bidez, eta 2017. urte osoan eginikoa bikoiztu zuten ia.

Administrazio publikoen arteko online transmisioen kopurua areagotu egiten da, urtero.

ONLINE TRANSMISIOAK

Urtea	Transmisio-kopurua
2012	668.958
2013	1.054.014
2014	1.206.325
2015	2.894.123
2016	3.382.627
2017	6.689.050
2018	10.592.733
2019	11.950.131

Administrazio publikoek elkarren artean gehien trukutzen dituzten izapideak honako arlo hauekin zerikusia duten dokumentazioa eta informazioa dira, hurrenkera honetan:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE).
2. Proba libreak hizkuntza-eskola ofizialetan.
3. Unibertsitateaz kanpoko eta unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak.
4. Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko laguntzak.
5. Etxebizitzako prestazio osagarria (EPO).
6. Aitortutako sinadura elektronikoaren ziurtagiria eskuratzea.
7. Zentro publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzea.
8. Gizarte-larrialdiko laguntzak.
9. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetako onarpena eta matrikulazioa.
10. Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK 703.000 EURO BIDERATU DITU EUSKADIKO ADMINISTRAZIOETAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONEN PRESTAKUNTZARA

- IVAPen laguntza horiek langile publikoen prestakuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzen dituzte, herritarrei ematen dien zerbitzu publikoa hobetzeko

Gobernu Kontseiluak, gaur, 2020. urte honetan, Euskadiko foru- eta toki-administrazioetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza finantzatzeko laguntzen deialdia onetsi du. Guztira, 703.000 euroko laguntza dira, eta horiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) “[2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko](#)”an jaso dira.

Helburua da aldundiek eta toki-administrazioek (udal, mankomunitate edo kuadrillak) onetsitako etengabeko prestakuntza-plan eta -programak sustatzen eta finkatzen laguntzea:

- Foru-administrazioak: 218.000 euro
- Tokiko administrazioak: 485.000 euro

Erakunde interesdunek izapideak telematikoki eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte, IVAPen webgunearen bidez: www.ivap.euskadi.eus.

IVAP

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) helburuetako bat, besteak beste, honako hau da: “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta beste edozein administrazio publikok edo antolamendu juridikok bere esku utz dezakeen funtzionarioen eta kontratudunen prestakuntza eta hobekuntza*”. Era berean, honako helburu hau ere nabarmendu behar da: “*lurralde historikoekin, udalekin eta Euskadiko toki-administrazioiko gainontzeko erakundeekin elkarlana sustatzea, langileei prestakuntza eta hobekuntza emateko*”.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK 25.000 EURO INBERTITUKO DITU EUSKADIKO UDALETAN ETA MANKOMUNITATEETAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN EUSKALDUNTZEA DIRUZ LAGUNTZEN

- **Astean 8 eta 25 irakastordu bitarteko ikastaroak diruz laguntzen dira, udal eta mankomunitateetako langileak beren lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizunaren prestakuntza-ikastaroetara joateko**

Eusko Jaurlaritzak, aurten, 2020. urtean, 25.000 euro inbertituko ditu; horrela, Euskadiko udal eta mankomunitateei lagundu egingo die langileak erabat edo partzialki ordezkatzeko kostua finantzatzeko, harik eta beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna lortu arte.

Laguntza horiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ([IVAP](#)) bidez kudeatzen dira, eta honela banatuko dira:

- ✓ 20.000 euro, udal-administrazioetako langileen ordezkapenak finantzatzeko.
- ✓ 5.000 euro, mankomunitateetako langileen ordezkapenak finantzatzeko.

Astean 8, 10, 15 eta 25 irakastorduko ikastaroak lagunduko dira diruz. Azken modulu hori barnetegi bateko egonaldiaren bidez ere egin daiteke.

HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

Laguntza horiek IVAPen "[2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko](#)"an sartzen dira. Horrela, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bere eginkizun nagusietako bat betetzen du, administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea, herritarrek beren administrazioarekin harremanak nahi duten hizkuntzan egiteko duten eskubidea bermatzeko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

IVAP-EK 22.000 EURO BIDERATUKO DITU ENPRESA ETA ERAKUNDEETAKO PRAKTIKAK DIRUZ LAGUNTZERA, HIRIGINTZAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROKO IKASLEENTZAT

- **Ikasleek, praktiketako 300 orduetan, zuzeneko harremana izango dute hirigintzaren arloko lan-jarduerarekin**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako “[2019-2020 Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako XLV. Ikastaro](#)”ko ikasleek erakunde eta/edo enpresetan diruz lagunduta egingo dituzten praktiken deialdia onetsi du.

Ikastaroak 700 orduko iraupena izango du eta, gainera, 300 orduko praktikaldia izango du, ikastaroa osorik gainditu duten ikasleentzat, baldin eta hirigintza-arloan 48 hilabetetik beherako lanbide-esperientzia badute, azken 8 urtean. Praktikak ez dira beharrezkoak izango ikastaroa egin dela egiaztatzen duen diploma eskuratzeko.

IVAPek, guztira, 22.000 euro bideratuko ditu dirulaguntza horietara; laguntza bakoitzeko ez da gaindituko, inolaz ere, 2.222,22 euroko kopurua, eta Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) kudeatuko du dirulaguntzaren esleipena eta segimendua.

Diruz lagundutako praktikak hilabeteko epean eskatu ahalko dira, uztailaren 13an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnetik. Eskabideak IVAPek webgunean (www.ivap.euskadi.eus) ezarritakoaren arabera aurkeztu beharko dira.

HELBURUA

Deialdia IVAPen “[2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko](#)”an sartzen da. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak deialdiaren bidez duen helburua da lurralde-antolamenduarekin eta hirigintzarekin zerikusia duten arloetan diharduten pertsonen prestakuntzari eta birziklapenari bide ematea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

IVAPEK 15.985 EURO BIDERATU DITU HIRIGINTZAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROKO IKASLEENTZAKO BOST BEKA FINANTZATZEKO

- **Baliabide ekonomiko murriztuak dituzten ikasleentzako hiru beka dira eta historia akademiko bikaina duten ikasleentzat beste bi**

Gobernu Kontseiluak, gaur, bost matrikularen gastuak ordaintzeko bost bekaren deialdia onetsi du, “*Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV. Ikastaroa (2020-2021)*” egiteko. EVETU - Lurralde eta Hiri Antolaketarako Euskal Eskolak antolatzen du; eskola Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendekoa da. Deialdiaren helburua da lurraldearen antolamenduarekin eta hirigintzarekin zerikusia duten arloetan diharduten pertsonen prestakuntzari eta birziklapenari bide ematea.

Aurreko edizioetako esperientziak bi errealitate erakusten ditu. Alde batetik, ikasle izan daitezkeenei laguntza ekonomikoa emateko eta bideratzeko beharra, ikastaroa egin ahal izateko. Bestetik, goi-errendimenduko ikasleen eta bikaintasun akademikoko ikasleen arteko sustapena, beren prestakuntza hirigintzara bideratzeko. Horrela bada, bi matrikula-beka mota ezartzen dira:

- Baliabide ekonomiko murriztuak dituzten ikasleentzako hiru beka.
- Historial akademiko bikaina duten ikasleentzako bi matrikula-beka.

Guztira, IVAPEk 15.985 euro bideratuko ditu beketara. EVETU - Lurralde eta Hiri Antolaketarako Euskal Eskolak kudeatuko du haren esleipena eta segimendua.

Bekak hilabeteko epean eskatu ahalko dira, uztailaren 13an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnetik. Izapide guztiak tramitazio elektronikoen bidez egin beharko dira. Eskabideak “Sariak eta laguntzak” atalean egingo dira, IVAPen egoitza elektronikoan www.ivap.euskadi.eus. Deialdia IVAPen “[2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko](#)”an sartzen da.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 28 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU, GAUZATU PROGRAMAREN BIDEZ, OINARRI TEKNOLOGIKO ETA/EDO BERRITZAILEKO ETEAK GARATZERA

- **500 lanpostu sortuko dituen 100 milioi euroko inbertsio induzitua lortzea espero du**
- **2000n abian jarri zenetik, GAUZATU Industriak 1.227 proiekturi lagundu die, 2.245 milioi euroko arribideko inbertsioa egin du eta 14.933 enplegu sortu ditu**

Eusko Jaurlaritzak gaur goizean onartu du 28 milioi euro bideratzea oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko ETEak sortu eta garatzeko, GAUZATU Industria programaren bidez.

Programa honen helburua da enpresen hazkundera bultzatzea, finantzaketarako sarbidea erraztuta, eta dauden tresnen eta sortzen direnen kudeaketa koordinatua eta eraginkorra bermatzea. Gainera, aurten bidea emango du 100 milioi euroko inbertsio induzitua egiteko eta 500 enplegu sortzeko.

GAUZATU programa ekonomikoki eraginkorra da. Izan ere, programa abian jartzearen kostua mugatuta dago daukan kreditu-izaera inplizituagatik, eta nagusia itzuli egin behar da egikaritutako inbertsioen proportzioan.

Laguntza erreala honako hauei dagokie:

- * Interesak ez ordaintzea.
- * Finantza-erakundeekiko kreditu-lerroen liberazioa.
- * Laguntza itzulgarri hauek lortzeko bermerik edo abalik behar ez izatea.

Programa hau oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko ETEak sustatzean datza, eta horrek inpaktua du EAEko garapen teknologikoan eta berrikuntzan. Hortaz, une honetan hain garrantzitsua den ehun ekonomikoaren produktibitatea hobekuntzen laguntzen du.

Era berean, proiektu horiei lagunduta, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin nahi da, EAEko aberastasun ekonomikoa eta soziala sortzen laguntzeko.

Berrikuntzak aukera berdinak ematen ditu handiaren eta txikiaren artean, baita gutxi-asko garatutako zonen artean ere. Horrenbestez, parametro horiek indartu behar ditugu, eta oinarri teknologiko edo berritzailekotzat jotzen diren proiektu eskusiboetan zentratu eta horietara bideratu behar dugu ahalegina, betiere kontuan hartuta badirela eduki eta/edo filosofia desberdineko proiektuetarako laguntzak bideratzen dituzten programak.

Gobernuak, egungo krisian ere, enpresek lehiakor izaten jarrai dezaten du helburu, eta lehendik dauden lanpostuak finkatu eta ahalik eta enplegu gehien sortu nahi ditu.

2000n abian jarri zenetik 2019ra arte, 1.227 inbertsio-proiekturi eman zaie laguntza GAUZATU Industriaren esparruan. Denera, 2.245 milioi euroko inbertsioaz eta 14.933 lanpostu sortzeaz ari gara, enpresa onuradunek itzuli beharko dituzten 537 milioi euroko laguntza-bolumenarekin.

Programak emaitza onak ditu eta ETE-en beharrak asetzen ditu, finantza-erakundeekiko tresna alternatibotzat hartzen baita.

Programaren deskribapena

Lagundu beharreko proiektuak EA Eren barruan kokatuko dira, gutxienez 120.000 euroko inbertsio onartura iritsi beharko dute eta, aldi berean, enpleguak 24 hilabetez mantentzea eta/edo sortzea ekarriko dute.

Dirulaguntza itzulgarriak dira, inbertsioekiko proportzionalak, eta gehienez 150.000 eurokoak sortzen den enplegu bakoitzeko, edo 100.000 eurokoak hasierako plantillari eusteko, eta urteko bost kuotatan itzuli beharko dira.

Laguntzen onuradun izan ahalko dira enpresa txiki eta ertainak (ETEak), erauzketako industrialak, eraldatzaileak, produktiboak eta zerbitzu teknikoetakoak (produktu-prozesuari lotutakoak) badira, aurrekoekin lotuta badaude eta oinarri teknologiko eta/edo berritzailekotzat jotzen badira, baita industria enpresetan (catBSC-n erregistratutakoetan) IT/OT (Information Technology / Operational Technology) inguruneetarako zibererasoen aurkako babes-sistemak bateratzea eta integratzea jarduera nagusi duten enpresak ere.

Era berean, sartu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako industria-taldeetako enpresak ere (industria-taldeetakotzat hartzen dira euren artean % 100eko akzio-partaidetza duten enpresa multzoak), hala eskatzen badute, eta, betiere, batera hartuta, ezaugarriak betetzen badituzte.

Halaber, aukera ematen zaie nekazaritzako elikagaien industrietako enpresei programa honen onuradun izan daitezen, baldin eta haien inbertsioak ez badira beste programa batzuen dirulaguntzen eta/edo bestelako laguntzen xede.

GAUZATU Industria laguntzetarako, Jaurlaritzak SPRI – Enpresa-garapenerako Euskal Agentzia eta Finantzen Euskal Institutua izendatu ditu erakunde laguntzaile.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

2,45 MILIOIREN LAGUNTZAK ONARTU DITU EUSKO JAURLARITZAK NEKAZARITZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA SEKTOREETAN I+G+BA BULTZATZEKO

- Helburua da efizientzia areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta sektoreen arteko lankidetzaren sustatzea
- Kontseiluaren bilera berean oniritzia eman zaie nekazaritza eta arrantzaren sektoreko eta elikagaien sektoreko elkarteei zuzendutako 430.000 euroren laguntzei

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzan, basogintzan eta arrantzako eta akuikulturako produktuen sektorean ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzeko emango diren 2.450.000 euroren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak, azken Kontseilu bileran. Kontseiluaren bilera berean onartu da, halaber, Euskadiko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzak arautzen dituen agindua.

I+G+Bko laguntzak

Lehen sektorean eta baserri munduan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko eta suspertzeko exekutibo autonomoa egiten ari den lanaren barruan, laguntza hauen helburua da efizientzia areagotzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta elkarlana sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantzako eta akuikulturako produktuen sektoreen artean.

Laguntza lerroak

Helburu horiek lortzeko, hauek dira aurreikusten diren laguntza bideak:

- Funtsezko ikerketen, industri ikerketen eta garapen esperimentalen proiektuetarako laguntzak.
- I+G+Bko proiektuei lotuta bideragarritasun teknikoaren azterketetarako egiteko laguntzak.
- Antolaketa alorrean berrikuntzak egiteko laguntzak.

Onuradunak

Hauek izan daitezke onuradunak:

- Enpresak, edozein dela ere beren forma juridikoa eta tamaina.
- Elkarateak eta Fundazioak.
- Nortasun juridikorik gabeko pertsona juridikoen edo fisikoen elkarte pribatuak eta ondasun erkidegoak.

- Zentro teknologikoak.
- Ikerketarako eta ezagutzen zabalkunderako erakundeak.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Laguntza eskaera egiteko inprimakia web helbide honetan egongo da eskuragai: <http://www.euskadi.eus>.

Elkarteentzako laguntzak

Elkarteak programaren barruan ematen dira, 430. 372 euroren laguntzak dira, eta nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreko elkarteek elikaduraren balio kateko agenteei eskaintzen dieten aholkularitza babesteko dira.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailean, dagokion organoan, egingo da eskaera. Laguntza eskaera egiteko inprimakia web helbide honetan egongo da eskuragai: <http://www.euskadi.eus>.

Enplegua eta Gizarte Politikak

LANBIDEK SEI MILIOI EURO BIDERATU DITU ENPLEGU-ZENTRO BEREZIETAKO ETA LANERATZEKO ENPRESETAKO LANPOSTUAK MANTENTZERA

- Hala, Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzak bi kolektiboetako inklusio-kota altuei eustea dute helburu
- Lanbidek langabeziagatiko prestazioen osagarria edo aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa lagunduko du diruz

Beatriz Artolazabal Eusko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluari, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman dio; haren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz jarduerak eten edo murriztu behar izan dituzten laneratzeko enpresentzako eta enplegu-zentro berezietako aparteko laguntzen deialdia onetsi da. Lanbidek 6 milioi euro bideratuko ditu horretara.

Hala, alarma-egoeraren adierazpenaren eraginpean dauden laneratzeko enpresentzako eta enplegu-zentro berezietako aparteko laguntzak onetsi dira. Laguntza horien helburua da, ahal den neurrian, desgaitasuna duten pertsonak eta/edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak betetzen dituzten postuak mantentzen laguntzea, eta, hala, erakunde horiek beren jarduera behin betiko etetera bultzatuta sentitzeko aukera murriztea; izan ere, jarduerak erabat edo zati batean etenez gero edo jarduera murriztuz gero, erakunde horietako askok, beharbada, ezingo dituzte beren lanpostu guztiak mantendu.

“Neurri horren bidez, enplegu-zentro bereziek eta laneratzeko enpresek Euskadin dituzten inklusio-kota altuei eusten laguntzen dute Lanbidek eta Eusko Jaurlaritzak”, esan du Artolazabalek. “Erakunde horiek zenbait kolektiboren diskriminazio positiboa egiten dute. Desgaitasuna duten pertsonak edo bazterketa-arriskuan daudenak dira; kolektibo erabat kalteberak”.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila etengabe ari da honako elkarte hauekin elkarlanean: EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte), desgaitasuna duten pertsonen gizarte- eta lan-inklusioa sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen euskal elkarte; Gizatea, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte, eta Berezilan, Enplegu Zentro Berezien Enpresa Elkarte. Hori dela eta, Artolazabal sailburuak geldialdi ekonomikoak enplegu-zentro berezietan eta laneratzeko enpresetan eragin ditzakeen ondorioen gaineko “kezka” adierazi du, “zentro eta enpresa horiek funtsezkoak baitira desgaitasuna duten pertsonen eta gizarte-bazterketa egoeran daudenen inklusioa bermatzeko”.

Soldata-osagarria

Deialdi honen bidez, Lanbidek diruz lagunduko ditu laneratzeko enpresek eta enplegu-zentro bereziek beren plantilletako langileei, langabeziagatiko prestazioen osagarri gisa edo aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomiko gisa, hileko nominetan ordaindu dizkieten soldata ordainsarien araberako soldata-kostuak.

Laguntzaren zenbatekoa, gehienez, 475 eurokoa izango da hilean, lanaldi osoan kontratatutako pertsona bakoitzeko. Denbora partzialeko kontratuaren eta/edo errendimendu txikiko kontratuaren kasuan, eta lanaldi-murrizketaren kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzio berean murriztuko da.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 1,15 MILIOI EUROKO ZUZENKO DIRULAGUNTZA EMAN DIO NOVIA SALCEDO FUNDAZIOARI, 'REACTIVATE' PROGRAMA ABIAN JARTZEKO

- **Horren bidez, ikasturte honetan ikasketak amaitzen dituzten 10.000 gazte gradudunetatik 1.000 baino gehiagori lehen enplegurako aukera ematea du helburu**

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eskatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, onetsi egin du Novia Salcedo fundazioari 1.150.000 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea, Novia Salcedo fundazioak egingo duen giza gazte kapitala sartzeko ReACTIVate programa finantzatzeko.

Ekimen horren helburuek aurreikusten dute gutxienez ordaindutako 200 beka sortzea berehala, lanez bestelakoak, bai eta lehen enplegua izateko aukera ematea ere, urtea amaitu aurretik, ikasturte honetan ikasketak amaitzen dituzten 10.000 gradudunetatik 1.000 gazte baino gehiagori.

“Etorkizuneko gizartearen funtsezko eragilea sustatu behar dugu: gazteak”, esan du Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako titularrak.

Programa

Novia Salcedoren ReACTIVate programak gradudun berrien eta euskal enpresen arteko lotura sustatzea aurreikusten du eta, hala, hurrengo ikasturtea baino lehen, fundazioaren konpainia laguntzaileekin batera, gutxienez 200 prestakuntza-beka sortzea, ordainduak, arautuak eta lanez bestelakoak, gazteek esperientzia praktiko kualifikatua berenganatzeko, bereziki merkatuak sortzen diren enpleguetarako eskatzen dituen arloetan: ekonomia zirkularra, arkitektura jasangarria, efizientzia energetikoa, kudeaketa aurreratuko ereduak, kudeaketa-sistema integratuak, kultura eta negozio-ekipoak, enplegu sozio-komunitarioa, logistika eta bioteknologia eta biokimika.

Programa horietan parte hartzeko, gazteek honako eskakizun hauek bete behar dituzte: unibertsitate-tituludunak izatea, lanbide-heziketakoak edo doktoregaiak, langabezian edo enplegu-hobekuntzan egotea, eta COVID19aren pandemiaren ondorioz praktikak egiteko aukera gabe geratu diren azken urteko ikasleak; arreta berezia eskainiko zaio genero-ikuspegiari, krisialdiak emakumeekiko desberdintasuna larriagotu ez dezan.

Bekek 4 hilabete iraungo dute, gutxienez, eta 6, gehienez, 7 orduko lanaldi osoan, eta, hilean, 776 euroko zuzkidura gordina izango dute. NSFko lanez kanpoko enpresa-praktikak hiru aldean arteko –gaztea, fundazioa eta enpresa– hitzarmen baten bidez arautzen dira, eta hitzarmen horrek haren erabilera

arautu eta erabileran segurtasun eta gardentasun osoa bermatzen ditu: zer eginkizun bete daitezkeen, zer babes duen gazteak, zenbat ordu, non, aseguruak etab. Espainiako legeria betetzen dute (2011 ED), Europar Batasunaren gomendioak betetzen dituzte eta, besteak beste, Gazteriaren Euskal Kontseiluak eta LANEk ziurtatzen dituzte.

Enpresek, hala, lanbide-profil lehiakorak eta prestatuak izango dituzte, lan-merkatuko eskari eta joerei erantzuten laguntzeko. Novia Salcedok proiektuak landuko ditu beraiekin, plan trinkoen bidez eta behar den gaztearen profilerako lanbide-interesarekin, eta konpromisoa hartuko du helburuen bilakaeraren eta amaierako ebaluazioaren tutoretza egiteko. Enpresako egonaldian, Novia Salcedok segimendu-sistema ezarriko du bekadunarentzat eta konpainiako tutorearentzat.

Bekaren aurretik, zeharkako gaitasunen inguruko prestakuntza derrigorra izango da, 16 orduko programa eta funtsean ikuspegi praktikoa eta autozuzendua duena, Problem Based Learning (PBL) metodologia oinarri duena, teoriaren eta praktikaren arteko oreka aurkitzeko, eta tresna digitalak erabiltzen dituen.

Hautatzen diren gazteak enpresa laguntzaileetan sartzen joango dira, Novia Salcedo proiektuak ixten joan ahala, abuztuaren amaierarako gazte guztiak dagokien enpresan egon daitezen.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK ZUZENKO DIRULAGUNTZA EMAN DIE GURUTZE GORRIARI, PEÑASCAL SOZIEKATE KOOPERATIBOARI, IGNACIO ELLACURÍA FUNDAZIO SOZIALARI, CARITAS DIOCESANA DE BILBAORI, BIZITEGI ELKARTEARI, ZABALDUZ SOZIEKATE KOOPERATIBOARI, ARRATS ELKARTEARI ETA CÁRITAS DIOCESANAS DE DONOSTIARI, 'LEHEN URRATSA' PROIEKTUA FINANTZATZEKO

Krisi honen gizarte-inpaktuetako bat erakundeek antzeman duten eta haien arreta jaso duen pertsona-kopuruaren gorakada izan da, dela konfinamenduaren ondorioz aterpeak birgaitzean kasuak antzemateko gaitasuna areagotu delako (kontakotetan antzematen ez ziren, baina kalean zeuden pertsonak), dela, beren diru-sarrerak galdu dituztelako edo turismo-ostatuak itxi direlako, zeukaten ostatua galtzean (alokairuko etxebizitza, logela, pentsioa, hotela...) egoera horretan dagoen pertsona-kopurua areagotu delako.

Lehen Urratsa programa Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren eskusio-batzordeak eta krisialdiaren hasieratik garatu diren ekimenak aurkeztu dituzten erakundeek identifikatu dituzten beharrak eta zenbait proposamen aztertu ondoren diseinatu da, eta Eusko Jaurlaritzako beste sail edo erakunde batzuekin egiaztatuta.

Horrela, Lehen Urratsa programaren helburua da laguntza-intentsitate baxua duten ostatu-aukerarako bide ematea, 2020ko abenduaren 31ra arte, alarma-egoeran eta konfinamenduan administrazio publikoek gaitutako aterpeetan aurretik hartutako pertsonen, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak hiru lurralde historikoetako hiriburuetan eragindako gizarte-larrialdiko egoerari erantzuteko.

Konfinamendu-egoerak berak aukera eman du aurretik erakundeekin harremanik ez zuen hainbat pertsonarengana hurbiltzeko eta haien profilak antolatzeko. Horrek guztiak aukera paregabea dakar beren egoera ezagutzeko, beren beharrak identifikatzeko, arreta dibertsifikatzeko eta profil bakoitzarentzat egokienak diren gizarte-integrazio ibilbideak antolatzeko, konfinamendua utzi aurretik, eta, hala, pertsona horientzako arreta ahalik eta gehien hobetzeko.

Lehen Urratsaren bidez, honako profil hauei emango zaie arreta: bazterketa-egoera larrian dauden eta kalean bizitzen ibilbide luzea duten gizon etxegabeak; bazterketa-egoera larrian dauden emakume etxegabeak (baliabide bereziak behar dituzte); kasu batzuetan martxoaren aurretik ikasketak egiten ari ziren eta beren integrazio-ibilbidea eten behar izan duten bidaiderik gabeko gazte migratzaileak (haietako batzuk bere sasoian babes-sareko egresatuak); adikzioak dituzten eta, sarritan, osasun mentaleko arazo erantsiak dituzten gazte etxegabeak (hogeita hamar urte artekoak eta gehiagokoak).

Programa irizpide komun batzuetan oinarrituta garatzen da; beraz, programan sartutako pertsona guztiek ostaturako, mantenuerako eta gizarte-laguntzarako prestazioak jaso ahalko dituzte, dagokien baliabide-tipologia gorabehera. Gainera, programaren barruan, gazteentzako baliabideek aisia- eta prestakuntza-jarduerak jasoko dituzte udako hiletan, astialdia egoki erabiltzen dela sustatzeko, bai eta erkidegoarekiko eta gizarte-integrazioarekiko erlazio-jarduerak ere.

Aipatu den baliabide-tipologia bikoitza aintzat hartuta, jarraitutasun handiagoa ematen duten edo beste prestazio batzuk jaso dituzten (esaterako, lan-orientaziokoak, prestakuntza okupazionalakoak...) gizarteratzeko prozesuak egiteko aukera ematen dutenek lagundutako finantzatzea izan beharko dute.

Erakunde horiek guztiak euskal administrazio publikoekin elkarlanean arreta jaso duten kolektiboekin ari dira lanean.

Proiektu honen finantzaketarako interes publikoko arrazoen oinarria da bereziki kalteberak diren eta bazterketa-arriskuan dauden biztanleen sektore batek behar duen laguntza; izan ere, egungoa bezalako egoeran, normalean ematen den laguntza baino handiagoa behar du.

Zuzeneko dirulaguntza hori Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak kudeatuko du; organo horrek hura emateko helburuak betetzen diren ikuskatuko du.

Zuzeneko dirulaguntza 2.555.980,00.-eurokoa da, eta honela banatuko da, erakundeen arabera: Gurutze Gorria, 226.040,00 euro; Peñascal, S. Coop., 641.145,00 euro; Ignacio Ellacuría fundazio soziala., 232.038,00 euro; Caritas Diocesana de Bilbao., 264.445,00 euro; Bizitegi elkarte, 433.954,00 euro; Zabalduz, S. Coop., 206.758,00 euro; Arrats elkarte, 268.800,00 euro; Cáritas Diocesana de Donostia., 282.800,00 euro.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

INGURUMEN SAILAK VERTER RECYCLING ENPRESARI BAIMENA EMAN DIO 1. SEGURTASUN-BILTEGIA ZABALTZEKO 2. BILTEGIAREN ORDEZ

- Irtenbide horrek bilaketa- eta egonkortze-lanen jarraipena ziurtatzen du, eta guztira 804.000 metro kubikoko edukiera du
- DS1aren goialdean eraikiko dute zabalkuntza, eta, horrek bidea emango du hondakinak zaborteziaren esparruaren barruan lekualdatzeko

Gobernu Kontseiluak, gaurko bilkuran, oniritzia eman dio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolaren 35/2020 Dekretua aldatzeari. Horren bidez, baimendu egiten da 1. segurtasun-biltegia (DS1) handitzeko Verter Recycling 2002 SLk aurkeztutako proposamena, proiektatutako 2. segurtasun-biltegia eraiki ordez; Zaldibarko zaborteziaren egonkortzeko lanetan ateratako hondakinak hartzeko eta joan den otsailaren 6an izandako lerraduraren ondorioz lurperatutako bi beharginenak bilatzeko jarduketan barruan.

Horrela, partzialki baiesten da zaborteziaren jabe den enpresak martxoaren 3ko 35/2020 Dekretuaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa. Dekretu horren bidez, istripua izan zen instalazioaren inguruan segurtasun-biltegiak (DS1 eta DS2) presaz egikaritzea onartu zen, Ingurumen Sailak baztertu ondoren Verter enpresak bigarren zeldaren ordez proposatutako beste irtenbide batzuk. DS2 biltegia zaborteziaren goialdeko lurretan zegoen proiektatuta, 160.000 metro kubikoko edukierarekin.

Azkenean Verter Recycling-i baimendutako aukera 1. segurtasun-biltegia handitzea da (haren okupazioa agortzear baitago), aldamenean zelda bat eraikita Motia mendiaren magalean dauden bi ibarbide txikiren gainean. Horiek 68.555 metro karratuko azalera hartzen dute. Geotekniari eta hidrologiari buruzko azterketa teknikoan arabera, egokia da biltegi berria hartzeko kokalekua. Izan ere, datu onuragarri gisa, guztira 804.000 metro kubiko har litzake eta hainbat fasetan egikaritutako litzateke.

Biltegiatze-edukiera handiagoa

Ingurumen Sailaren iritziz, “funtsezko aldagaia da Ingurumen Baimen Integratuaren esparruko kokalekuaren egokitasuna, ingurumen-inpaktu txikia eta epe ertainean induskatu eta mobilizatzen jarraituko diren hondakin lerratuak hartzeko edukera handiagoa”, aurrez aurreikusitakoa aldatzea onartzeko, atzo onartutako dekretuaren aldaketan jasotzen denez. Beste faktore batzuk ere kontuan izan dira, hala nola eraginpeko lursail gehienak zaborteziaren parte direla eta instalazioaren barrutik irisgarriak direla, herriguneetako eremuak zeharkatu behar ez izateko. Izan ere, ekialdeko ibarrean 182.000 metro

kubikoko aldi baterako metaketa dago, zabortegiko ontziaren indusketatik datorrena eta etorkizunean zigilatzeke erreserbatuta zegoena.

Biltegi berria eraikitzeke aurreikusitako epea 20 hilabetekoa da, obrak hasten direnetik ixten diren arte, baina faseka egikaritzea aurreikusita dago. Horrela, hasi eta hilabete pasatxoan, 1. fasea 215.000 m³ inguruko kalkulaturako edukierarekin erabiltzen has liteke. Horrela, ziurtatu egingo da zabortegian lurperaturako bi langileak, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltrán, bilatzeko eta isurketak egonkortzeko egiten ari diren presazko lanen jarraipena, DS1 biltegiaren edukiera agortzen bada ere.

Proiektuak 120 metroko luzera, 20 metroko altuera eta gailurrean 8 metroko zabalera duen euste-dike bat eraikitzea aurreikusten du bi ibarbideen behaldez, harrobiko harbetako nukleo batekin, eta 53.500 metro kubiko material erabiliko dira bertan. DS1 biltegia handitzeko Verter enpresak aurkeztutako proiektuaren kostu zenbatetsia 13,4 milioi eurokoa da, eta gehienbat induskatu eta lurrak mugitzera eta ontzia iragazgaiztera bideratuta dago.

Erremediatzeko marjina

140.000 metro kubikoko 1. segurtasun-biltegia eskura izateak eta orain onartutako handitzeak bide emango dute 950.000 metro kubiko inguru biltegitatu ahal izateko: otsailaren 6an lerratu ziren hondakinen bolumenetik oso gertu dagoen kantitatea. Edukiera horrek nahikoa marjina eskaintzen du, ez bakarrik presazko lanetan orain ateratako hondakinak pilatzeko, baizik eta enpresa jabeak zabortegia behin betiko egonkortzeko eta erremediatzeko lanei ekin ahal izateko ere (lan horiek Ingurumen Administrazioari proposatu behar dizkio).

Gogoratu behar da martxoaren 3ko 35/2020 Dekretuan Ingurumen Sailak erabaki zuela segurtasun-biltegiak zuzenean eta modu subsidiarioan egikaritzea, “Zaldibarko zabortegiaren irristatzeak eragindako urgentzia atzeraezineko egoeraren aurrean” eta enpresa jabeak ezbeharraren ondoren agindutako behin-behineko prebentzio- eta zuzenketa-neurriei ekiteko gaitasunik ez zuela adierazi ondoren. Indarrean dagoen ingurumen-araudiak ezartzen duenez, jarduera ekonomiko horien operadoreak “behartuta daude ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartzera eta betearaztera, eta horien kostuak ordaintzera, zenbatekoa edozein dela ere, horien erantzuleak direnean”.

Hori dela eta, martxoaren 4an Verter Recycling-en aurka ingurumen-erantzukizuna eskatzeko espedientea hastea erabaki zen, Zaldibarko zabortegian otsailaren 6an eta ondorengo egunetan izandako gertakarien ondorioz sortutako kalteengatik, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

BILBON, GASTEIZEN ETA AZPEITIAN 195 ETXEBIZITZA SOZIAL ETA GAZTEENTZAKO APARTAMENTU ERAIKITZEA BAIMENDU DA

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 22 milioi eurotik gorako inbertsioa egiteko, horren bidez Bilbon, Gasteizen eta Azpeitian etxebizitza sozialen eta gazteentzako zuzkidura-bizitokien hiru sustapen eraiki daitezen.

Lehen sustapenak 6.406.000 euroko aurrekontua du, eta 55 etxebizitza sozial eraikiko dira Bilboko Arangoiti auzoan.

Gainerako bietan, gazteentzako 140 zuzkidura-bizitoki eraikiko dira. Sustapenik handiena (92 bizitokikoa) Gasteizko Lakuabizkarrra auzoan eraikiko da, eta 9.798.218 euroko aurrekontua izango du; Azpeitiko Mirabeen komentu zaharraren zati batean, berriz, beste 48 bizitoki eraikiko dira. Komentuak ondare-balio handia du, eta mendebaldeko hegala birgaitzeko proiektuak 6.472.859 euroko aurrekontua du.

Zuzkidura-bizitokiak hainbat kolektiboren premia iragankorrei erantzuteko pentsatuta dagoen bizitegi-formula publiko bat dira. Legeak ezarritako gehieneko okupazio-denbora luzaezina bost urtekoa da, eta, horregatik, irtenbide egokia dira gazteenen emantzipazioa errazteko.

Datozen hilabeteetan, obren lizitazioa eta esleipena egingo dira, eta, aurreikuspenen arabera, eraikuntza datorren urtearen hasieran hasiko da. Sustapen guztiak energia-kontsumo ia nuluko irizpideei jarraikiz eraikiko dira.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

810.000 EURO BIDERATU DIRA ERAIKUNTZAREN ARLOKO BERRIKUNTZARAKO ETA HIRIGINTZAREN ETA ARKITEKTURAREN ZABALKUNDERAKO

Gobernu Kontseiluak Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren bi agindu onartu ditu. Horietako batek eraikuntzaren sektorean kalitatea eta berrikuntza sustatzeko Eraikal programako laguntzetarako deialdia egiten du, eta besteak EAEko hirigintza-diseinuaren eta arkitektura garaikidearen zabalkundeak sustatzeko deialdia.

Eraikal programak hiru dirulaguntza-lerro aurreikusten ditu, guztira 560.000 euroko zenbatekoaz. Lehenik eta behin, bizitegi-eraikin berrien eraikuntzan hobekuntzak dakartzaten berrikuntza-proiektu edo -azterketetarako, baita lehendik daudenak birgaitu eta kontserbatzeko direnetarako ere. Gainerako lerroak dira hobekuntza horiek aplikatzeko tresna informatikoak garatzeko, eta eraikuntza kudeatzeko sistemak ezarri eta ziurtatzeko, bai eraikuntzarekin lotutako alderdiei dagokienez, bai materialei eta efizientzia energetikoari eta jasagarritasunari dagokienez.

Bestalde, arkitektura eta hirigintza zabaltzeko laguntzen aginduak honako hauek diruz laguntzea aurreikusten du: erakusketak, hitzaldiak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzea; aplikazio informatikoak eta material digitala ekoiztea; zabalkundeko liburuak edo gidak argitaratzea; eta EAEko arkitektura garaikideari buruzko dokumentalak eta webguneak egitea; Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienalak (Mugak) ezarritako gogoeta, elkarrizketa eta eztabaidako esparruen barruan betiere. 250.000 euroko zuzkidura ekonomikoa du.

Programak laguntza-lerro hauek ezartzen ditu:

1. Zabalkundeko aldi baterako erakusketak (150.000 euro bideratu dira guztira).
2. Jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, lantegiak eta workshop-ak (horientzat 50.000 euro erreserbatu dira).
3. Argitalpenak, dokumentalak eta tresna informatikoak (50.000 euroko aurrekontua izango dute).

Deialdi honen esparruan egiten diren jarduerak argitaragabeak izango dira, lehendik dauden erakusketa ibiltarien kasuan izan ezik.

Eskabideak aurkezteko epea (bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira) Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta irailaren 10ean amaituko.

Deialdiaren xede diren diruz laguntzeko moduko lerroetako batean ere ez zaio dirulaguntza bat baino gehiago emango eskatzaile berari.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 1,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMETARAKO

- **Deialdi honen bidez, Eskolatzeko Osagarriko 19 programa lagundu dira diruz, amaitu berri den ikasturtean; 285 ikasle hartu dute parte horietan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Eskolatzeko Osagarriko Programak garatzeko dirulaguntzetarako deia egiten duen Agindua. Laguntza ekonomiko hauek itunpeko ikastetxeei, irabazi asmorik gabeko entitateei, mankomunitateei, udalei edo azken hauek sortutako entitateei zuzenduak dira, betiere 2020-2021 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programak abian jartzeko asmotan badira eta horretarako proiektua aurkezten badute. Deialdi honek 1.211.250 euroko diru-kopurua du orotara.

Eskolatzeko Osagarriko Programak hezkuntza-premia bereziak –eskolara moldatzeko zailtasunei lotutako egoera larrietatik sortutakoak- dituzten ikasleei laguntzeko sortuak dira, hain zuzen ere beren hezkuntza-prozesuen aurrean, ikaskideen eta irakasleen aurrean eta gizarte-ingurunearen aurrean jarrera positiboak garatzen laguntzeko. Programen xedea hau da: aipaturiko ikasleei, berriazko taldeetan antolatuta, beren garapen pertsonalerako, berriro eskola-sistema arruntera egokitzeko edo ondoren lanbide-hastapeneko ikasketei (horiek helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaituko dituzte) ekiteko baliagarriak diren ikaskuntzak eskaintzea.

Eskolatzeko Osagarriko Programak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko sorturiko programak dira, egoera pertsonal edo sozialengatik eskolara egokitzeko zailtasunak dituzten ikasleei zuzendurik. Helburua da talde espezifikoetan antolatzen diren ikasle horiei beren hazkunde pertsonalerako, ohiko eskola-sistemara egokitzeko edo, ondoren, helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaitasuna emango dien Lanbide Hastapeneko prestakuntzara sartzeko erabilgarrienak diren ikaskuntzak erraztea.

Edonola ere, tailerren bidez curriculumeko alor instrumentala lehenesten dute programok, betiere ikasleen beharretara egokitutako metodologia erabiliaz. Programa hauek berritzaile izaten eta ikasleen jakingura piztuko duten jarduerak burutzen egiten dute ahalegina. Era horretan, ikasleen motibazioa pizten dute, hezkuntza-ibilbidean jarrai dezaten.

Programa hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduak dira, programa hasten den urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte beteta dituzten ikasleei zuzenduak. Aldi baterako neurri gisa ulertu behar da, inoiz ez behin betiko, ikaslea ahal bezain laster sistema arruntean berriro txertatzea lortu nahi baita. Era berean, ezohiko neurria ere bada, DBHren ohiko araubidean

aniztasunari erantzuteko aurreikusitako gainerako neurriak agortu ondoren aplikatzekoa, hala nola, hezkuntza-indargarriak, curriculum egokitzekoak edo berariazko parte-hartze proiektuak.

19 programa, 285 ikasle

Hezkuntza Sailak bere ekimenez garatzen ditu programa hauek beharrezko diren ikastetxe publikoetan, baina gorago aipaturiko entitateekin lankidetzan ere aplikatzen dira, deialdi honen bidez. Hain zuzen ere, amaitu berri den 2019-2020 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko 19 programa lagundu ditu diruz Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez, guztiak ere Euskadiko 17 entitatek garaturikoak. Orotara 285 ikaslek hartu dute parte 19 programa horietan.

350.000 EURO IKASLEEN GURASO ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOEN DIRULAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitatez besteko ikasleen guraso elkarten Federazio eta Konfederazioentzako dirulaguntzetarako deia egiten duen Agindua onartu du. Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du orotara.

Laguntzak Federazio eta Konfederazioek beharrezko dituzten azpiegitura gastuei aurre egiteko emango dira, elkarten laguntza eta aholkularitza gastuei aurre egiteko, gurasoen formakuntza jarduerak eragindako gastuei aurre egiteko, edo ikasleei zuzendurik elkarre horiek antolaturiko eskolaz kanpoko jardueretarako. Ekintza hauek guztiek 2020an burutuak izan beharko dute. Gehienez jardueraren kostuaren %50 ordaindu ahal izango da laguntza hauen bidez.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK OSAKIDETZAKO EGITURA-PLANTILLA HANDITU ETA 27.606 PROFESIONALEK OSATZEA ONETSI DU

